

Ingurune ekonomikoa

BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa⁽¹⁾

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2005	2006	III-2006	IV-2006	I-2007	II-2007	III-2007
Nekazaritza	-13,8	-9,8	-8,1	-5,3	8,1	11,5	2,0
Industria	4,9	4,9	4,8	4,6	4,9	4,6	3,6
Eraikuntza	4,7	5,1	5,1	5,0	4,5	4,4	4,3
Zerbitzuak	3,5	3,8	3,9	3,8	3,7	3,6	3,6
Kontsumoa	3,8	3,9	3,9	3,8	3,7	3,7	3,4
K.E.G.⁽²⁾	6,1	6,0	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8
Eskaria	4,4	4,5	4,5	4,4	4,5	4,5	4,1
Esportazioa	5,1	7,5	8,3	8,3	6,5	9,0	6,5
Inportazioa	5,8	7,7	8,4	8,5	7,0	9,2	6,7
BPGda	4,0	4,2	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8

Iturria: Eustat. (1) Bolumen kateatua. (2) Kapital eraketa gordina

inbertsioak zortzi hamarren galdu ditu (%5,8 orain orduko %6,6rekin alderatuta). Hala, barne eskariaren hazkundea %4,5etik %4,1era jaitsi da. Esportazioetan eta inportazioetan ere aurreko hiruhilekoan izandako aurrerapenak baino txikiagoak dira oraingoak, %6,5 eta %6,7ko tasak izan dituzte eta, hurrenez hurren.


Eskaintzaren ikuspegitik aztertuta, hazkundearen dezeleraziorik izan ez duen bakarria hirugarren sektorea izan da (%3,6), ez-merkatuko zerbitzuen aldeko bilakaerari esker. Eraikuntza dugu, berriro ere, sektorerik dinamikoena, nahiz bere hazkundea hamarren batez moteldu duen (%4,3koa orain lehengo %4,4koaren aldean). Industri sektoreak, bere aldetik, hazkunde nabarmenari eutsi dio (%3,6), aurreko hiruhilekoan baino puntu bat baxuago badago ere. Edonola ere, ekipo ondasunen produkzioak hazkunde tasa aipagarriak ematen ditu oraindik ere, eta hauek maila altuetan eusten diote industri produkzioari. Azkenik, lehen sektoreak hazkunde tasa positiboak mantendu ditu (%2), aurreko bi hiruhilekoetan baino askoz mailago apalago batez inolaz ere; horrenbestez, honek ere bere partea izan du hazkunde tasa orokorra moteltze horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren urtetik urterako hazkundea %3,8koa izan da 2007ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetan izandakoa baino hiru hamarren baxuagoa; horrenbestez, bere hazkunde erritmoa moteldu egin du. Hazkunde hori Estatuan oro har izandakoaren berdina da (%3,8), eta Estatu Batuetan zein Euro Eremuan izandakoa baino 1,2 puntu gorago dago, aipatu biotan %2,6koa izan da eta hazkundea.

Eskariaren ikuspegitik aztertuta, kontuan hartutako partida guztiak erakusten duten beheranzko profila azpimarratu behar da; izan ere, kontsumo pribatuak hiru hamarrenez egin du behera (%3,4 2007ko hirugarren hiruhilekoan, 2006ko epe berdinean %3,7koa izan zen bitartean), eta

Enpleguaren egoera

Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatkoa (EAE, milatan)




* Iturria: Eustat.

Aurreko bi hiruhilekoetan bezala, 2007ko hirugarren hiruhilekoan biztanleria aktiboa pixka bat hazi da, urtetik urterako datuei erreparatuta (%0,5). Biztanleria landunaren hazkundea %1,1 izan da (%3,1 Estatuan oro har), eta biztanleria langabea gutxitu egin da berriro (-%14,9), 30.800 lagunekoa izatera jaitsi da eta. Halatan, bada, 2007ko hirugarren hiruhilekoko langabezia tasa %3,1eko mailara jaitsi da (%3,6 2006ko aldi berdinean). Osterantzean, erregistratutako langabeziaren urtetik urterako murrizketa %4,5ekoa izan da hiruhileko honetan zehar. Sektorekako bilakaerari dagokionez, 2007ko hirugarren hiruhilekoan lehen sektorean eta industri arenektorean jaitsi egin da enplegu

maila (-%14,1 eta -%1,8 hurrenez hurren); eraikuntzan eta zerbitzuetan igo egin da (%5,5 eta %2 hurrenez hurren).

Soldatako biztanleria kontratu motaren arabera (ehunekotan)



Beste alde batetik, soldatako biztanleriaren kopurua berriro ere hazi egin da (%1,1 2006ko hirugarren hiruhilekoaren aldean), eta 802.000 laguneko kopurura iritsi da. Horietatik, %76,4k kontratu mugagabeak dituzte, %20,8k aldi baterako kontratuak, eta gainerako %2,8 kontratu gabek eta beste batzuek osatutako taldea dira. Hortaz, behin-behinekotasun tasa nabarmen hobetu da, urtetik urterako kopuruei dagokienez (%20,8 %25,5ekoaren aurrean). Datu negatiboena INEMen erregistratutako kontratazioak eman du, izan ere 2007ko


hirugarren hiruhilekoan kontratazio mugagabea aldi baterako kontratazioa baino gehiago jaitsi da (-%7,7 -%0,8ren aurrean), erregistratutako kontratazio guztiaren murrizketa testuinguruan (-%1,4).

Negoiazio kolektiboa

Ian harremanen kontseilua consejo de relaciones laborales

Negoiazio kolektiboaren segimendua

(EAEko negoziazio kolektiboak 570.734 lagun ukitzen ditu)




- BERRITU GABEKO HITZARMENAK: Indarraldia amaitu eta aztergai dugun hileraren arte berritu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak. 369 hitzarmen dira.
- 2007an ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK: 2007an zehar erregistratu eta urte bererako indarraldia duten hitzarmenek ukitutako langileak (hiletik hileraren metatutako balioak). 239 hitzarmen dira.
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK: 2007rako indarraldia duten eta 2006ko abenduaren 31ra arte erregistratutako urte anitzeko indarraldiko hitzarmenek ukitutako langileak. 370 hitzarmen dira.

Iturria: Geuk egina Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren informazioan oinarriturik.

beste datu bat negoziazio prozesuen iraupena da. Izan ere, 2007an erregistratutako sektoreko hitzarmenak negoziatzeko prozesuek 278 egun iraun dute, batez beste, eta honi erantsi beharko litzaioke kasuan kasuko negoziazio mahaien eraketa formalean batzuetan gertatzen den atzerapena. Enpresako hitzarmenetan, berriz, %36,6 daude oraindik sinatu gabe, eta eremu horretako langileetatik %40,9 ukitzen dituzte. Edukiari dagokionez, berriz, Lege berriak bultzatzen dituen berdintasun planen atzerketa sartzen hasi da.

Itundutako soldata igoeren eta inflazioaren bilakaera




(*) 2007ko irailaren 30era arte erregistratutako hitzarmenetan

baino handiagoa alegia, hauetako portzentajea %3,19koa izan baita. Bestalde, lurralde arteko hitzarmenetan izan da igoera handiena (%4,77), batez ere irakaskuntza pribatuan lortutako akordioari esker (%4,85). Erreferentzia bakartzat EAEn erregistratu diren hitzarmenak hartzen baditugu, soldata igoera %3,91koa izan da, hau da, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan itundu dutena (%2,61) baino askoz handiagoa.

2007ko urteko lehen bederatzita hilabeteetan 239 hitzarmen erregistratu dira. Hauek 101.263 pertsona ukitzen dituzte (%17,7). Eta urte honen hasieran dagoeneko hainbat hitzarmen zegoen berrituta, hain zuzen negoziazio kolektiboak ukitzen dituen lagunetatik %30,5 hartzen zutenak. Hartara, %51,7 ukitzen duten hitzarmenak berritzea falta da. Araban sektoreko hiru hitzarmen daude berritzeko, eta metalaren industria nabarmendu beharra dago, 2003az geroztik berritu gabe dagoelako (azken hau estatutuz kanpoko itun bat izan zen); Bizkaian sektoreko 28 hitzarmen falta dira (%65,7 enplegu mailan); horien artean metal eta zuraren industria (2003az geroztik), baina beste batzuek are denbora luzeagoa daramate: ile-apaindegiek (2001etik), abokatuen bulegoek (2000z geroztik), eraikuntzako materialek (2002az geroztik) eta beira lauzko enpresak (2002az geroztik). Gipuzkoan sektoreko 33 hitzarmen daude berritu gabe (dagokien enpleguaren %67,9), horietatik hamasei 2003 edo lehenagotik. Geldialdi egoera orokor honen barnean hainbat akordio edo aurre-akordio lortu da, eta hauek lagundu egin dute, edo lagundu dezakete, atzeratuta dauden hitzarmenak izenpetzen (esate baterako, Gipuzkoako merkataritzaren eta siderometalurgiaren kasuan). Akordioak lortzeko zailtasunak islatzen dituen

Berritutako hitzarmen hauetan itundutako soldata igoera (batez besteko haztatua langile kopuruaren arabera) %3,55ekoa izan da - Estatuan oro har %2,89koa-. Kasu biotan soldatak berrikusteko klausulen eraginak oraindik jasotzeko badaude ere, aipatzekoa da 2006rako itundutako igoerarekiko (%4,42) izan den jaitzeria nabarmena; honen eragile nagusia erreferentzia nagusia izaten den urte arteko inflazio tasa 2006an murriztu izana izan da. Oraingoz, soldata igoerak hitzarmen horien bitartez erregulatuta dituzten pertsonen erosteko ahalmenak handitzen jarraitzen du, baina datozen hilabeteetarako inflazio aurreikuspenen arabera hobekuntza horiek nabarmen murrizt daitezke. Funtzio eremuen arabera aztertuta, sektoreko hitzarmenetan itundutako soldata igoera %3,66koa izan da, enpresetakoetan izandakoa

Hitzarmen kolektiboetan itundutako lanaldi murrizketak



(*) 2007-06-30era arte erregistratutako hitzarmenetan

Lanaldiari dagokionez, ikusten dugu gero eta txikiagoa dela lanaldi murrizketak ezartzen dituzten hitzarmenen portzentajea (berritutako hitzarmenen %30,3). Dagoeneko ohikoa den moduan, EAEn erregistratu diren hitzarmenetan dugu murrizketa adosten duen hitzarmen kopuru handiena (%37,8); EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan, berriz, kopuru hau %16,2ra jaisten da. Murrizketaren zenbatekoa (3 ordu urtean) 2006an indarrean zeuden hitzarmenetan itundutakoaren berdintsua izaten ari da; dena den, duela urte batzuk itundutako murrizketen azpitik dago, nabarmen. Kontuan hartu behar da hitzarmen asko berri gabe daudela, eta eremu horietan lanaldia inolako aldaketarik gabe mantentzen dela formalki, zenbait kasutan aspaldiko urteetan inolako aldaketarik

gabe gainera. 2007rako berritutako hitzarmenetan, itundutako lanaldia 1.682 ordukoa izan da, 1.686 ordukoa sektoreko hitzarmenetan, eta 1.672koa enpresako hitzarmenetan. Era berean, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan itundutako lanaldia 1.730 ordukoa da, hau da, EAEn erregistratu diren hitzarmenetan finkatutako 1.665 ordukoa baino nabarmen luzeagoa.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak

		2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)
ARAB A	Grebak	41	38	41	36	57	30
	Parte hartz.	173.779	6.883	11.680	6.274	6.359	3.130
	Egunak	182.358	43.795	47.338	32.990	12.036	5.693
BIZKAI A	Grebak	94	118	116	85	109	69
	Parte hartz.	260.813	24.043	47.620	39.817	44.543	20.951
	Egunak	294.126	128.756	197.233	56.673	122.216	56.472
GIPUZK OA	Grebak	56	65	86	55	58	48
	Parte hartz.	169.626	43.868	41.758	7.025	11.675	9.687
	Egunak	182.344	167.315	361.584	16.525	34.181	30.188
EAE	Grebak	191	221	243	176	224	147
	Parte hartz.	604.218	74.794	101.058	53.116	62.577	33.768
	Egunak	658.828	339.866	606.155	106.188	168.433	92.353

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Eusko Jaurlaritzaren Egunkariak. (*) Urtarril-iraila epea

2007ko hirugarren hiruhilekoan izandako grebak 2006ko epe berdinean izandakoak baino gutxiago izan dira, bai greba kopuruari bai partaide eta lanik egin gabeko egunei erreparatuta. Era berean, lan gatazken jaitsiera hau hiru lurralde historikoetan gertatu da.

Hala, 2007ko lehen bederatzita hilabeteetan 147 greba izan dira guztira EAEn; partaideak 33.768 izan dira, eta lanik egin gabeko egunak, berriz, 92.353. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, greba kopurua jaitsi egin da (-%18,3), partaideak gutxiago izan dira (%27,1), eta lanik egin gabeko egun kopuruak ere behera egin du (-%20,9).

Greba horietarako arrazoiei dagokienez, %57,8 negozioz kolektiboko desadostasunek eragindakoak izan dira; eta

ohi den moduan, hauek izan dira eragin handiena izan dutenak, urteko hiru hiruhileko hauetan zehar grebak direla eta lanik egin gabeko egunetatik %92,5 horietatik etorri baitira.

Egin diren greba guztietatik, 136 enpresakoak izan dira, eta 11 sektorekoak. Azken hauek lanik egin gabeko egun kopuru osoaren %25,3 izan dira. Enpresa eremuko greben artean, %79,4 sektore pribatuan izan dira, eta hauek eremu horretan lanik egin gabeko egunen %32,6 eragin dituzte. Beraz, sektore publikoan egindako grebetan pertsona gehiagok hartu du parte (11.111 partaide izan dira sektore publikoko grebetan, eta 7.991 pribatukoetan), eta, hartara, greba horiek askoz eragin handiagoa izan dute.

Lurraldeak banan bana aztertuta, lan gatazken bilakaera desberdina izan dela ikusten da. Araban eta Bizkaian lan gatazkak gutxitu egin dira oro har; Gipuzkoan, berriz, kontrakoa gertatu da. Greba kopurua %28,6 jaitsi da Araban, eta %25 Bizkaian; partaide kopuruetan, berriz %18,2koa izan da Arabako jaitsiera eta %41,7koa Bizkaian, eta lanik egin gabeko egunei dagokienez %16,6 eta %37,1eko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aitzitik, lan gatazken igoera orokor bat antzematen da; izan ere, greba kopuruak %4,3 egin du gora, partaideak %48,3 gehiago izan dira, eta lanik egin gabeko egun kopurua %49,1 hazi da.

Enplegua erregulatzeko espedienteak

EAEko administrazioak baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteak

	Espedienteak (1)	Ukitutako langileak			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2002	211	5.650	21	3.331	2.298
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007(*)	216	3.228	9	2.486	733

(1): EAEko administrazioak baimendutako espedienteak. (*) Iraila arte metatutako datuak. **Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.


2007ko hirugarren hiruhilekoan nabarmen igo da enplegua erregulatzeko espediente kopurua (%87,5, eta ukitutako pertsona kopurua %116).

2007ko lehenengo hiru hiruhilekoetan, 216 izan dira enplegua erregulatzeko baimendutako espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horiek 3.228 langile ukitu dituzte guztira; horrenbestez, kopuru horiek %62,4 eta %40,3 igo dira, hurrenez hurren, 2006ko ekitaldiko epe berdinarean aldean. Aipatzekoa da batez ere etete espedienteek ukitutako langile

kopurua handitu dela (2.486 langile), desegite espedienteek ukitutako langile kopuruak, berriz, behera egin duen bitartean (733 langile). Espedienteak eragiten dituzten arazoiei dagokienez, kausa finantzarioez eta eskariak bestelakoekin lotutakoak izan dira ugariena (168 espediente, eta ukitutako 2.155 langile), nabarmen egin baitute gorantz aurreko ekitaldiarekiko (espediente kopuruak %211,1 egin du gora, eta hauek ukitutako pertsonak %176,6 gehiago izan dira). Aitzitik, eskari kausek eta finantzarioek eragindako espedienteak nabarmen gutxitu dira. Bestalde, espediente horietatik %60,6 (ukitutako enpleguaren %46,6) lehen sektorean gertatu direla ikusten da, antxoaren arrantzarekin lotutako arazoek ildotik, eta hauen ondorio nagusiak enpleguaren aldi baterako eteteak izan dira. Espedienteen %21,8 industriari gertatu dira (ukitutako enpleguaren %41,3), baina, kasu honetan, ukitutako 1.334 langileetatik 531ren kasuan amaiera espedienteak izan dira. Eraikuntzak espedienteen %4,2 izan ditu (ukitutako langileetatik %7,1), eta hauen ondorio nagusia aldi baterako eteteak izan dira. Beste %13,4 bat zerbitzuetan gertatu da, eta hauek 163 pertsona ukitu dituzte (ukitutako enpleguaren %5). Pertsona hauetatik 80ren kasuan aldi baterako eteteak izan ziren, 82ren kasuan enplegu amaierak, eta pertsona baten kasuan lanaldiaren aldi baterako murrizketa.

Lan ezbeharrak

Ezgai egoeran egon diren langileen kopuruaren aldakuntza (ehunekotan) aurreko urtearen aldean



(*) Irailera arte metatutako datuak **Iturria:** Osalan, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

2007ko hirugarren hiruhilekoan lan ezbeharren kopuruak gorantz egin du. Hala eta guztiz, aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan zehar kopuru horrek bilakaera ona izan du, oro har.

2007ko irailera arte Euskal Autonomia Erkidegoan lan ezbeharren ondorioz ezgai egoeran egon diren langileen kopurua (36.901 lagun) %7 jaitsi da aurreko urteko aldi berdinarean aldean, eta jaitsiera hori orokorra izan da. Halatan, bada, ezbeharrek lan jardunean jotako kopurua (32.741) zein ezbeharra in itinere jasandakoen kopurua (3.533) jaitsi egin da, lan gaixotasunek jotako kopurua (627) bezalaxe. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kopuru hauetan %4,7, %3,4 eta %62,5eko jaitsierak ikusten dira, hurrenez hurren (kontuan hartu behar da lan gaixotasunen jakinarazpen sistema berria, murriztaileagoa da eta).

Lehenik eta behin, ezgai egoera eragin duen ezbeharra lan jardunean jasan dutenei erreparatzen badiegu, eta sektorez sektore aztertzen badugu, nabarmentzen da sektore guztietan behera egin dutela kopuruak. Nekazaritza-arrantza sektorea izan da, lan ezbeharren bat izandako 666 pertsonarekin, jaitsiera handiena izan duena (%-10,2). Eraikuntza sektorea dabilkio atzetik, ezbeharren bat izandakoak 5.945 izan baitira (%-8,7). Ondoren zerbitzuen sektorea dator, 12.740 izan istripuekin (%-4,9). Azkenik, industriaren sektoreak izan du jaitsierarik txikiena (%-2,3), lan ezbeharren bat izandako 13.390 pertsonarekin. Lan jardunean jasandako ezbeharren larritasunari dagokionez, istripu arinen bat jasandakoak (32.451) %4,7 gutxiago izan dira, baina istripu larriren bat jasandakoak (256) eta heriotza ekarri duten istripuek jotakoak (34 lagun hil dira) %2 eta %9,7 gehiago izan dira.

Istripu kopuruaren bilakaera hau enplegua hazten ari den testuinguruan kokatu behar dugu. Hala, istripu kopurua biztanleria landunaren bilakaerarekin lotzen badugu (lan jardunean izandako ezbeharrek mila landuneko), nabarmentzen da lan ezbeharren eraginak behera egin duela berriro ere. Zehatz adierazita, 2007ko lehen bederatzi hilabeteetan zehar 34 ezbehar izan dira lan jardunean mila landuneko (2006ko aldi berdinean 36,2 izan ziren). Eta joera bera agertzen da, oro har, azterketa sektorez sektore egiten badugu: lehen sektorean adierazle honek erakusten digu 56 ezbehar izan direla lan jardunean mila landuneko (2006ko lehen bederatzi hilabeteetan 59,2), industria sektorean 54,4 (2006an 56,4), eraikuntzan 71,7 (2006an 81,8) eta zerbitzuetan 20,5 (2006an 21,8). Edonola ere, datu hauen bilakaera ona izan arren, behin eta berriro aipatu behar dugu heriotza eragiten duten istripuetan izandako gorakada handia.